



Ereñagaurrekoa (-a) etxebizitza

Aldakerak: Erramuntxona / Goixargi

Ahozkoa: Ereñaurre / Errémontxóna / Goidxárgi

“... la casería titulada Ereñaga-aurrekoa en el termino de la Anteiglesia de Berriz, compuesta de una sola vivienda, ocupa una superficie de ciento veinte y cinco metros, cincuenta y tres centímetros, con inclusión del antusano y franquicias...”

DJE 4/148 or. (1879)



43° 10' 15"

2° 35' 46"

Berriz Iruditan / T. Angoitia

Ereñaga baserriaren (**Ikus Ereñaga**) aurrean eraikitako baserri honen gaineko lehen aipu dokumentalak XIX. mendekoak dira: 1825. urteko polizia-errolan *Ereñaga aurrekoa* agertzen da. Hortik aurrera, forma bera agertzen da dokumentu guztietan. Egunerokotasunean, berriz, aldaera desberdinak izan ditu azken urteotan: aipatutako *Ereñaurre* izenetik hasita, jabearen izenean oinarritutako *Errémontxóna* izenetik pasatuz, eta nondik datorren ez dakigun izen batera helduta, hau da, *Goidxárgi*. Egungo jabeek ez zekiten nondik zetozen izen horiek, eta orain urte batzuk, erosi zutenetik, *Erramuntxona* izenez izendatu dute.

Baserri honetan material zaharrak berrerabili dira eta aspaldiko tradizioa berreskuratzeko ahalegina egin dutela dirudi. Hori antzeman daiteke, bereziki, kantaletako tantai ederreki eta alboetako egurrezko egiturari erreparatu ezker. Pisuen banaketa, oster, ohikoa da. Behekoan, erdian, atartea dauka, zurezko dintelduna eta leiho bana, bi aldeetan. Gainean, hauekin lerrokatuta, balkoia erdian, eta leihoak aldamenetan. Eta ganbaran, leihoa eta txori-to-ki bana. Aitaturiko egurrezko elementuez gain, material bera erabili dute leihoburu guztiak eta balkoiaren karela egiteko. Harlangaitzezkoa da beheko pisuko horma eta gainekoa luzituta eta pintatua dauka.

toponimia

Ereño landarea xumea bada ere gure toponimian ugaria izan da. Zuhaitz hau, *Laurus nobilis* oso preziatua izan zen antzinatetik eta irabazleei bere ostoz egindako koroa ematen zitzaien. Kasu honetan izenaren bigarren osagaiak jatorrizko Ereñaga baserriaren aurrealdean egindako etxea bereizteko jarri zen.